

BI MUTILL-ZAR

(Sagardotegiyan)

I
Bi mutill-zar lengo batian
zeuden sagardotegiyan,
batek besitari esanez onla:
—Aizak—xelebrekeriyan—
andria artzia obe ukek ik
orain nere iritziyan,
gau eta egun ibilli gabe
beti albrojakeriyan,
non dira mama goxuak eta
igualixo erromeriyan
Orlako aukera eduki eta
neska zarreitk erriyan,
igañera zintxo pare gabiak
beren lanketa guziyan!
Baldifi itz egiñezkero goxo
eta modu egokiyan...
bakarren batek begiz jotxia
¿zenek zekik etorkiyan?
Moiell, azala zimurtzen asi

zaik iri ere aurpegiyan,
edadez ere artuko aute
erriko eliz aundiyan
zuzentzen bayaiz nere ezaneta
gerta litekek agiyan
gazte muxu politaren bat....
¡Ez niok ire tokiyan!....
koxkor bat artu eta gaugero
nioken Errenteriyan.

II

Ez niken uzte gure erriyan
orrelakorik bazanik,
erri mutill-zar bizi nai bañan
andria artzia nai dek nik
Besterentzako konseju onak,
eztu esaten bererik,
ezpaltzayo bezela orri
gustatzen mama goxorik;
¡Eta aukera epifitzen dit

gañera, nezka zarreitk!
nere kontura ez dek egingo
uste bezin aisa parrik;
len sobra dakik, nik ez detala
ire gisa andre biarrik,
nere bizi moduz konten naiz ni
etzaidat bate ajolik
ireizat ere bazaudek, motell
zar eta gazte politik
zer gertatzen dan gero azkenian
gisarajua, ¿bai aldakik?...
Lagun artera joango bañan
beti urri patrikatik,
gero txikiyak:—Aita, ogiya—
negarrez elduta ankatik,
andria berriz desafiyoka
onenian aldamenetik;...
Orrela bizi munduan bañan
mutill zar egon obe dik.

Zabaleta tar Juan'ek

ERRENTERIYA

Euskal erri bat guztiz ederra
askok maitatzen duana
gure probintzi Gipuzkoakoan
iduritzen zait onena.
Onratu eta alabatzen da
Santa aundi Madalena
arren bizitza nolakoa zan
esan biardet aurrena.

Nere mingañak ezdu indarrik
entendimentu illuna
esplikatzeko zure bizitza
munduan egin dezuna
orretarako eskatzen dizut
zeruko argitasuna
gauza guziyan zuzentzallia
Espirituko laguna.

Madalena zan guraso gabe
gastia gelditu zana
Lazaro eta Marta utzita
gastelu batera juana
gauza tristia inguruetan
zabaldua zeukan fama
lujua ta banidadera
entregatuba zan dana.

Jaungoikoaren bildurrik gabe
modu onetan bizi zan
bere anima gaxua zeukan
pekatariaren gisan;
denbora artan Jesus munduan
predikatutzen asi zan
Madalenaren konbertziyua
onetatik etorri zan.

Jaungoikoaren probidentziyak
oparo dauka indarra
Espiritua argitu ziyon
bazeukan ere biarra
esagaturik bere animan
zedukan estadu txarra
Inork esplikatu damuarekin
egiten zuen negarra!

Bere petxua kolpatzen zuen
damutasunez beterik
galdeturikan non zan Maisua
lez det maitatzen besterik!
Jesus zegoen etxera joantzan
lujo guziyak utzirik
jendea pranko an egon arren
ez egiten kasorik.

Auspezturikan bere onetan
onela dio esaten;
—Jauna barkatu: ondo dakizu
ni zer nolakoa naizen.
Jesus justuak erantzuera
ematen dio ain zuzen:
—Emakumea, zuaz pakian
garbitu zerade emen.

Jesusen oñak bustitzeraño
begietako malkuak
bere buruko illearekin
izan ziran legortuak.
Madalenaren damutasunak
etziran txantxetakuak
barkaturikan gelditu zaizka
egintako pekatuak.

Geroztikako pausuak ere
goguan artzeko dira
Jesuskristori jarraitu zion
Kalbariyoko mendira.
Gurutzearen onetan jarri,
jende guztiya begira,
len pekatari aundiya zana
penitentziyara jira.

Jesuskristoren gorputz santua
zutenian lurperatu
Madalenaren pena aundiya
ezin liteke dudatu,
berarentzako balsamo onak
asko zituen pagatu;
esan zioten:—piztu ta juanda
siñaleak utzi ditu.

Urte askoan penitentziyan
basamortuan egon zan
Jaungoikoari erregutuaz
anima salbatu zezan;
orain zeruangozatzen dago
merezitu zuan gisan.
Madalenaren bizitza zer dan
orra nik euskeraz esan.

Errenteriya jakinduriyan
beti dago famatua,
gazte abillak, jende prestuak,
ederki edukatua,
alabatua izan dedilla
daukagun bitartekua
egin zuena penitentziya
utzirikan pekatua.